



PRENSA

Kirol Ari espazio berriak egunean 400 gaztetxo jasotzetik ia 3.000 hartzera pasa da zazpi egunetan, eta horrekin 140.000 parte-hartzaile izan dira festetako haurrentzako hiru guneetan

Mankomunitateak eta Udalak jasotakoaren ia % 46 berreskuratu da, eta horrek aukera eman du auzoetan lan handiagoa egin ahal izateko

2018ko sanferminetako programa ofizialeko haurrentzako guneetara 140.000 lagun baino gehiago bertaratu dira dagoeneko. Hauek Festa Hauek! (Askatasun plaza) programa ezagunean 90.000 hurrek hartu dute parte, eta Birjolastun, Vistabella aldean dagoen birziklatutako elementuekin sortutako jolasetan, 40.000 izan dira. Gainera, kontuan hartu behar da 7an Birjolastu itxita egon zela, euria zela eta.

Eta kopuru horiei aurre gehitu behar zaizkie Kirol Ari guneak, hau da, Iruñeko Udalak kirol federazioekin elkarlanean Media Lunako lubanarroetan prestatu duen eskaintza berria. Uztailaren 12ra bitarte 10.080 txikik aukeratu dute leku hori bertan proposatutako jardueraren bat egiteko; modu progresiboan izan da, 7 bider baino gehiago handitu baita parte-hartzaileen kopurua uztailaren 6tik 12ra bitarte. Horrela, lehenengo egunean 400 parte-hartzaile izan ziren; 7an, 630; uztailaren 8an 1.000; 9an, 1.500; 10ean, 1.750; Haurren egunean, 1.850, eta atzo, 2.950.

Haurrentzako eremuetako parte-hartze datu hauek gaur ezagutu ditu Babes Zibileko Batzordeak. Batzorde hori erakundeen arteko organoa da, Nafarroako Gobernuaren eta Gobernuaren Ordezkaritzaren zerbitzu batzuk ere barne hartzen dituen, eta sanferminetako datuei buruzko informazio-iturri ofizial bakarra da. Bilera horretan zaborren gaikako sanferminetako bilketari buruzko informazioa ere eman da.

Hondakin gutxiago eta bilketa eraginkor eta koordinatuagoa

Mankomunitateak eta Iruñeko Udalak uztailaren 12ra bitarte edukiontzietan, paperetan, erratzez jasotakoetan eta bestelakoetan jasotako 805.440 kg-etatik % 45,48 berreskuratu da dagoeneko. Teknikariek esandakoaren arabera, portzentaje horren arrazoia da hondakinen bilketa gero eta modu eraginkorragoan egiten dela, Mankomunitatearen eta Udalaren elkarlanari esker. Esate baterako, modu independentean tratatzen ari dira zakarrontzi gorrietako edukiak, beste urte batzuetan ontzi asko jasotzen zituzten lekuetan.



Bestalde, hondakin-kopurua oro har jaisteko (2017an baino % 9,39 gutxiago) arrazoiak dira, batez ere, bilketa-lan eraginkorragoa, edalontzi berrerabilgarriaren aldeko apustua eta herritarren jokaera gizabidezkoa.

Iaz bezala, 2018 ere mantendu da auzoetako garbiketa-zerbitzua, eta, aurtengoan, lehenago amaitu baitira Alde Zaharreko eguneroko lanak, festak eragin gutxiago duen eremuetara zabaldu ahal izan da, besteak beste Zabalguneak, Arrotxapea, Iturrama eta Donibane. Horrela, hiriaren garbiketa-egoera orokorra hobetu da. Batez beste, egunero sanferminetan Udalaren garbiketa-zerbitzuko 250 langilek eta 69 makinek egiten dute lan.

Babes Zibileko Tokiko Batzarrean jakinarazi da gaur, baita ere, polizia kidego bakar batean ere ez dela sexu-askatasunarekin loturiko salaketarik izan.

Babes Zibileko Tokiko Batzordea erakunde-arteko organoa da, festa-egun guztietan eta uztailaren 15ean biltzen da eta bertan Iruñeko Udaleko alor guztiak daude ordezkaturik. Halaber, honako erakunde hauek ere parte hartzen dute, besteak beste: Nafarroako Gobernua, Udaltzaingoa, Foruzaingoa, Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila; Osasunbidea, Gurutze Gorria eta DYA, eta Iruñerriko Mankomunitatea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 13an

